



**Agindua Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen dituen apirilaren 12ko 79/2005 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedurari.**

Apirilaren 12ko 79/2005 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen ditu. Dekretu horrek garatu zituen Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79. artikuluan aurreikusitako ordainsari osagarriak zehazteko irizpideak eta adierazleak: lanpostu-mailako osagarria, berariazko osagarria eta produktibitate-osagarria.

Apirilaren 12ko 79/2005 Dekretuaren 3. artikulua hogeita hamar mailatan sailkatzen ditu funtzionarioen lanpostuak, haiek betetzeko eskatzen diren baldintzak eta haien eginkizunak kontuan hartuta. 3. artikulua 3. paragrafoak Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 43. artikuluan aurreikusitako titulazio-taldeetan sartutako kidego edo eskalei dagozkien mailen tarreak ezartzen ditu.

Ondoren, oinarrizko legeriak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, lanbide-taldeen sailkapen berri bat sartu zuen, eta Eusko Legebiltzarraren bi legeg berariaz arautu dituzte dekretu horretan jasotako hainbat alderdi:

Lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Kidegoei eta Eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legeak oinarrizko legerian ezarritako taldeen eta azpitaldeen sailkapena sartu zuen autonomia-erkidegoko legerian, zehazki Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Beraz, kidegoak eta eskalak talde hauetan sailkatzen dira, horietan sartzeko eskatzen den titulazioaren arabera:

- A taldea: bi azpitaldetan banatuta: A1 eta A2. Talde honetako kidego edo eskaletan sartzeko, graduako unibertsitate-titulua izatea eskatuko da.
- B taldea. B taldeko kidego edo eskaletan sartzeko, goi-mailako teknikariaren titulua izatea eskatuko da.
- C taldea. Bi azpitaldetan banatuta: C1 eta C2, sartzeko eskatzen den titulazioaren arabera.
  - o C1: Batxilergo edo teknikari titulua.
  - o C2: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua.

Bigarrenik, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 11ko 11/2022 Legeak indargabetu eta ordeztu egin du Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea, euskal enplegu publikoaren eredia eguneratuz, eta, jakina, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legeak ezarritako talde eta azpitalde profesionalen sailkapen berria jasotzen du. Era berean, Enplegu Publikoaren Lege berriaren IX. tituluak enplegu publikoko ordainsari-sistema arautzen du, ordainsari osagarriak barne.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 22ko 11/2022 Legeak berak, laugarren xedapen gehigarriaren bosgarren apartatuan, ezartzen du Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bat onartu beharko duela, lege honen 56. artikuluan zehaztutako sailkapen-taldeetan eta -azpitaldeetan sartutako kidegoei edo eskalei dagozkien maila-tarteak zehazteko; horretarako, urtebeteko epea izango du, legea argitaratzen denetik aurrera.

Horren guztiaren ondorioz, egiaztatu da aldatu egin behar dela apirilaren 12ko 79/2005 Dekretua, indarrean dagoena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen dituen, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari kidegoei eta eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legean eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 11ko 11/2022 Legean ezarritako taldeen eta azpitaldeen sailkapen berrira egokitzeko.

### 1. Xedea eta helburua

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen dituen apirilaren 12ko 79/2005 Dekretuaren 3. artikulua aldatzea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikuluan ezarritako sailkapenera eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 11ko 11/2022 Legea egokitzeko.

### 2. Bideragarritasun juridikoa eta materiala

Esparru juridikoa enplegu publikoaren eremuari dagokio, eta, zehazki, funtzionarioen ordainsariei.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 11ko 11/2022 Legeak, 122.1 artikuluan, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, 22.3 artikuluan, ezartzen dute ordainsari osagarriak lanpostuen ezaugarriak, karrera profesionala edo funtzionarioak lortutako jarduna, errendimendua edo emaitzak ordaintzen dituztenak direla.

### 3. Ordenamendu juridikoan izango duen eragina

Proposatutako aldaketak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen dituen apirilaren 12ko 79/2005 Dekretuaren 3. artikuluan 3. paragrafoari eragingo lioke.

Apirilaren 12ko 79/2005 Dekretuaren gainerakoak bere horretan jarraituko luke, eta indargabetutako Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen erreferentziak baino ez lirateke eguneratuko, egungo Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 11ko 11/2022 Legearen erreferentziekin ordeztuz.

#### 4. Arau-proiektuaren eragin ekonomikoa eta aurrekontu-eragina

Aldaketa horrek ez du eraginik izango Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuetan.

#### 5. Egin beharreko izapideak eta txostenak

Xedapen orokorrak egiteko prozedura Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak arautzen du. 13.1 artikulua e) apartatuan xedatutakoaren arabera, hasteko aginduak gaiaren eta proposatutako araudiaren edukiaren arabera egokitzen diren izapideak eta txostenak adieraziko ditu. Adierazitakoa kontuan hartuta, jarraian zehazten dira aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko hasiera batean behar diren izapideak eta txostenak:

I.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua lehen apartatuak ezartzen duenez, arau bat egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, eta etorkizuneko arauak uki ditzakeen pertsonen iritzia jasoko da bertan. Hala ere, aipatutako 133. artikulua laugarren apartatuak xedatzen du aurretiazko kontsulta publikoa alde batera utzi ahal izango dela, baldin eta arau-proposamenak jardura ekonomikoan eragin nabarmenik ez badu, hartzailei betebeharrak garrantzitsurik ezartzen ez badie edo gai baten alderdi partzialak arautzen baditu. Arau-aldaketak ez du eragin ekonomikorik, ez die betebeharrak ezartzen hartzailei, eta funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen dituen apirilaren 12ko 79/2005 Dekretuaren alderdi partzialak baino ez ditu aldatzen. Beraz, aipatu 133. artikuluan araututako aurretiazko kontsulta alde batera utz daiteke.

II.- Hasteko agindua argitaratzea. XOEPLren 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da. Argitalpen hori sail guztiei jakinaraziko zaie automatikoki, ekimenaren egokitasunari buruzko oharra egin ditzaten, hala badagokio.

Halaber, hasteko agindua ezagutza partekatuko Legesarea lankidetzaren gunean txertatuko da, xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo apartatuan (1. puntua) ezarritakoaren arabera.

III.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 37.1.b) artikulua arabera, langileen ordezkariekin negoziatu behar da.

IV.- Dekretua idaztea, dagozkion azterlanak eta txostenak eginez, zehazki, arauen egingarritasunari eta kostuari buruzkoak, hori guztia hizkuntza ofizialen berdintasuna bermatuz.

V.- Dekretu-proiektuaren testu elebiduna alde aurretik onartzeko agindua.

VI.- Izapidetze-espedientean sartuko dira proiektuaren justifikazio-memoria teknikoa eta memoria ekonomikoa.

Era berean, generoaren arabera eraginaren ebaluazio-txostena txertatuko da, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu

bategina onartzen duena) 20. artikuluan eta Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakian (genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzekoa; 2012ko irailaren 25eko EHAA, 187. zk.) aurreikusitakoaren arabera.

Bestalde, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6.1 artikuluan arabera, espedientean sartu behar da arau-proiektuak enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan izango duen eraginaren ebaluazioa, baina espediente honetan ez da beharrezkoa, ez baitauka inolako harremanik edo inpakturik enpresa-eremuarekin.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, nahitaezko txosten hauek eskatuko dira:

a) Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saileko Aholkularitza Juridikoak emandako txostena, oinarritzat hartuta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.4 artikulua eta Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 6.1 e) artikulua:

*Dagokion sailak egokitzen jotzen badu, espedientearen edukia eta azterketa juridikoa txosten juridiko espezifikiko baten bidez bideratu ahal izango dira. Txosten hori memorian aipatuko da, eta prozeduraren instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak emango du. Honako eginkizun hauek izango ditu txosten horrek: proiektuaren oinarrien defentsa juridikoari eustea, haren edukia legerari eta zuzenbideari egokitzea, eta, hala badagokio, araugintza-teknikaren jarraibideak betetzea.*

b) Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 20. artikulua aplikatuz.

c) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 14.2 l) artikuluan xedatutakoaren arabera, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuari dagokionez.

d) Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12.1.d) artikuluan xedatutakoaren arabera.

e) Enplegu Publikoaren Euskal Kontseiluaren txostena, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 15.b) artikuluan arabera.

f) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 25.2 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 41. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

g) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.c) eta d) artikulua aplikatuz.

VII.- Entzunaldiaren, jendurreko informazioaren eta parte-hartzearen eta kontsultaren izapideak egingo dira, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. eta 18. artikuluetan araututakoaren arabera, proiektuaren berri emanez:

- Eusko Jaurlaritzako sailei, erakunde autonomoei eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoei entzunaldia emango zaie, arau-proiektuari buruz egoki deritzotena alega dezaten.
- Jendurreko informazioaren izapidea egingo da, arau-proiektuaren berri herritar guztiei ematen zaiela bermatzeko.
- Ez da beharrezkoa izango Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egitea.

VII.- Izapidetzea amaitu ondoren, eta onartu aurretik, espedientea osatuko da, dokumentu guztiekin, dekretu-proiektuaren lehen testu integratua, eta hori guztia, aurrekariak eta egindako izapideak memoria labur batean jasoko dira.

VIII.- Gobernu Kontseiluak onartu beharko du proiektua, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak proposatuta.

IX.- Dekretua argitaratzea eta EHAA-n argitaratzea. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, indarrean jartzeko eta ondorio juridikoak izateko. Era berean, EAEko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratuko da.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko erabiliko den sistema Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko IZO-Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren itzulpena izango da.

Horregatik guztiatik, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legean eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoa betetzeko:

## EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Prozedura hastea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuen ordainsari osagarriak arautzen dituen apirilaren 12ko 79/2005 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agintzea.

Bigarrena.- Izapidetze-organoa izendatzea.

Funtzio Publikoko Zuzendaritza izendatzea prozedura hori izapidetzeko organo arduradun.

Hirugarrena. – Legesarea lankidetzaren gunean zabaltzea

Agindu hau Administrazio honen Legesarea lankidetzaren gunearen bidez zabaltzea, Gobernu Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an hartutako Erabakian xedatutakoa aplikatuz eta

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 19ko 19/2013 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Laugarrena. – Prozedura.

Kontsultak adostea, eta proiektua izapidetzeko beharrezkoak diren azterlanak eta txostenak biltzea.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailburuari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua

MARÍA UBARRECHENA CID